


NOR da psikologoa?





NOR da psikologoa?

Egilea: Mercedes Bermejo Boixareu
Itzultzailea: Aldara Gil Aranburu



Colegio Oficial
de **Psicólogos**
de Madrid

Euskarazko Bertsioan Kolaboratzaile

Gipuzkoako
Psikologia Elkargo
Ofiziala



Colegio Oficial de la
Psicología de
Gipuzkoa

Argitaratzen du: © 2017 Colegio Oficial de Psicólogos de Madrid.
Cuesta de San Vicente 4, 4.ª Planta (28008 Madrid). www.copmadrid.org
Testua: © 2017 Mercedes Bermejo Boixareu
Ilustrazioak: © 2017 M.ª Jesús Santos Heredero
Diseinu eta maketazioa: © 2017 La Factoría de Ediciones, S.L.
Euskarazko bertsioa: Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala
Jose Arana 15, behea (20001 Donostia). www.copgipuzkoa.com
Itzulpena: Aldara Gil Aranburu
ISBN: 978-84-87556-77-7



Aurkezpena

Madrilgo Psikologoaren Elkargo Ofiziala psikologoekin eta hauen lanak gure gizartean duen eraginarekin duen konpromezuagatik ezaugarritu izan da.

Ipuin honekin haur-psikologoaren irudia ezagutu eta normalizatzeko tresna bat eskaini nahi da, baita profesio hau txikieneei modu errazean gerturatu eta psikologo askoren lana aintzatetsi ere.

Formatu inprimatuaz gain, ipuina Madrilgo Psikologoaren Elkargo Ofizialaren webgunean dago deskargagai, interesa duten persona guztientzat eskuragarri egon dadin. Zihur gaude laguntza handikoa izango dela bai psikologoentzat, bai haurrentzat eta euren familientzat.

Fernando Chacón Fuertes

Dekanoa

Madrilgo Psikologoaren Elkargo Ofiziala





Aurkezpena

Ipuin hau psikologo askok haurrei eta euren familiei zein garen azaltzeko duten beharretik sortzen da. Orrialde hauen bitartez benetan gure esku-hartzea behar duten adin txikiko horiei gerturatu nahi gatzake, eta ez alderdi ebolutibo edo iragankorrei lotutako nolabaiteko ezinegona bizitzen ari liratekeenei, euren erreferentzia-figuren laguntza egokiarekin hobetzen direnak, edo helduen problematikei lotutako kontsultei, zeintzuetan ez den komeni haurrak tartean sartzea.

Ipuinaren helburua psikologoak haurrei eta euren familiei nola lagun diezaiekeen azaltzea, ilustratzea eta zabaltzea da, modu erraz eta ludikoan; zein den eta bere lanean zer egiten duen azalduz. Testua 4 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua dago eta, horregatik, umeekin batera helduek ere ipuina irakurtzea gomendatzen dugu, honen azalpenean lagunduz eta psikologoaren irudia normalizatuz.


Eskertzea

Madrilgo Psikologoaren Elkargo Ofizialari, proiektu honekin izan duen inplikazio, gogo eta konpromisoagatik.

Hainbeste erakutsi diguten umeei, eta euren familiei, psikologoengan jarri duten konfiantzagatik.

Loretta Cornejo Parolini, Carolina Ángel Ardiaca, Patricia Beltrán Pardo, Mónica Gonzalo Caballero, Carolina Laguna Diego, Blanca Santos Gimenez eta Jaime Picatoste Legazpiri, zuen laguntza eta profesionaltasunagatik.

Mercedes Bermejo Boixareu



KAIKO!!!

BADAKIZU ZEIN DEN NIRE IZENA?

izena dut eta





ZURE PSIKOLOGO-A IZAN NAHIKO NUKE



ASMATU EZAZU

NOLAKOA

NAIZEN!



Nitaz hau diote:



ENTZUTEN dakidala.

IRRIBARRE egitea gustatzen zaidala.

ATSEGINA naizela.

Umeak **LAGUNTZEN** ditudala.



ASMATU

ezazu ZER

EZ naizen!


EZ dut **MAGIARIK** egiten

eta ez dut **HAGAXKA MAGIKORIK**.

EZ dut **SENDAGAIRIK** ematen,
ez dut eztarria begiratzen, ezta
injekziorik jartzen ere.

EZ naiz **IRAKASLEA**, eta ez dut
etxeko lanik bidaltzen.

EZ dut garrasirik egiten eta ez naiz umeekin haserretzen...





EZETZ ASMATU **NON** NAGOEN?





EZETZ ASMATU

NOLAKOA DEN NI

NAGOENENKO LEKUA?

POLITA da,

EROSOA

ALAIA,

JOKOEKIN,...



ETA BADAIZU
ZER EGIN DEZAKEGUN

ELKARREKIN?

JOLAS egin,

MARGOTU,




NERE JOKO

guztien artean gehien

gustatzen zaizuna

AUKERATU



HITZ EGIN, ABESTU, DANTZATU...





BADAKIZU

ZERGATIK ETORRIKO ZAREN

NI EZAGUTZERA?


- Bihurriegia zarela diote? Asko mugitzen zarela?
- Zure gurasoek edo ikastolan etorri behar zarela esaten dizutelako?
- Ikasten ez duzula esaten dutelako?
- Zirikatu egin zaituzte?
- Batzutan zergatik jakin gabe haserretu egiten zarelako?
- Beldur edo ikarak dituzu eta ez dakizu haiekin zer egin?
- Triste sentitu zara?
- Ez dakizu? Elkarrekin aztertzea nahi duzu?

SEKRETU BAT

JAKIN NAHI DUZU...?



Hitz egiten ditugun



gauzetatik badira gure **SEKRETO** izan daitezkeenak.




BADAKIZU NOLA

LAGUN

DIEZAZUEKEDAN

ZU ETA ZURE FAMILIA?


- 
- Leku hau zuen guztien gustoko eginez
 - Zoriontsu izaten uzten ez dizuen hori konpontzen lagunduz
 - Zure gurasoei gauza garrantzitsuak azalduz
 - Zer gertatzen zaizun aztertu eta azalduz
 - Zure emozioei hitzak jartzen lagunduz
 - Nola izan nahiko zenukeen elkarrekin praktikatuz



ZURE ESKOLARA JOATEN UZTEN DIDAZU?

Zure irakasleekin hitz egiteko,
zu hobeto ezagutu eta haiei aholkuak emateko,
gertatzen zaizuna uler dezaten eta
hobeto zaindu eta lagun zaitzaten.

ZURE GURASO ETA ESKOLAREKIN
TALDE BAT GARA!!



JENDE GEHIAGO GONBIDATZEA NAHI DUZU?





Egun batean zure gurasoekin jolas gaitezke,
beste egun batean zure anai-arrebekin,
edo zure aitona-amonekin,
edo zuk nahi duzun pertsonarekin...



NOLA

SENTITUKO

ZARA PIXKANAKA?



EGUNETIK


EGUNERA

PIXKA

BAT



KONTENTUAGO...



ETA
HOBETO SENTITZEN ZARENEAN...
AGUR ESANGO
DIOGU ELKARRI...

BAINA GORORA EZAZU...

HEMEN

egongo naiz

BEHAR NAUZUNERAKO





GOGORA EZAZU...

BETI EGONGO
ZARA NIRE
BIHOTZEAN...

